


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

BERTAKOA ETA UNIBERTSALA IBILBIDE OROKORRA

Irakasleentzako koaderno
DBHOko ikasleentzat



SARRERA

Proposatzen den ibilbidea mistoa da; hau da, azalpenak ematen dituen bisitaldi gidatuarekin batera, ikasleek ere, lau taldetan banatuta, fitxetan eskatutako informazioa bilatu behar dute.

Talde bakoitzak gai bana jorratuko du, eta bukaeran, behin denak hezkuntza-tailerrean bilduta, talde bakoitzak besteei emango die egindako lanaren berri. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Izan ere, San Telmo Gizarte Museo bat da.

Hona hemen jorratuko diren gaiak:

1. **GENERO eta GIZA ESKUBIDEEN aldetiko begirada historikoa**
2. **LURRALDE TASUNAREN aldetiko begirada historikoa**
3. **IRAUNKORTASUNAREN aldetiko begirada historikoa**
4. **KULTURARTEKOTASUNAREN aldetiko begirada historikoa**

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde zurretik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.



Talde osoak elkarrekin egin beharreko parteak:

Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta taldeka jorratu beharreko gaien eta materialen banaketa (kontratutako bisitaldi gidatuen kasuan): talde bakoitzak dagokion lan-fitxa jasoko du; harekin batera uzten zaizkien paper-euskarria eta boligrafoak bisitaren bukaeran itzuli behar dira.

Eliza:

Ikus-entzunezkoa (13 min.)

“Aztarnak oroimenean” erakustaretoa, beheko klaustroan:

Historiaurretik XVIII. mendera arteko bidaia: ikasleei beheko klaustroko erakustaretoa hau arinki ezagutzeko parada emango zaie, gidariaren laguntzaz.

(Irakasleak bere kabuz egitea erabakitzen badu, haren esku geratzen da pasarte hau).

Gaietan sakondu gabe ere, museo batean “besterik gabe” (lan zehatz bat egin beharrik gabe) paseatu eta gozatzeko aukera emateaz gain, gure gaurko bizimoduaren urrutiko jatorrien berri izan dezakete. Era berean, museo baten mamia ez dela bisitaldi bakar batean agortzen ere uler dezakete.

Goiko solairuko ariketak:

Fitxetan galdetutako ariketak egitearren, gela lau taldetan banatu eta bakoitzari dagokion gaiaren arabera, erantzuteko informazioa bilatu behar dute (gogoetak haien kabuz egiteko eskatzen zaie), gehienbat klaustroan bertan, baina batzuetan baita aldameneko aretoetan ere.



Ikasleek egin beharreko ariketak, lau azpitaldetan gaika banatuta:

Esan bezala, informazioa bilatzeko eta gogoeta egiteko lana lau taldetan banatzen da, gai bana jorra dezaten. Halaber, gai bakoitzak hiruna ariketa dakartza.

Fitxetan agertzen den numerazioa praktikotasunarengatik erabiltzen da: lehena, bigarrena... esateak ez dakar lehentasunik edo ordenarik, taldeen joan-etorriak eta ariketak kontrolatzeko erraztasuna baizik.

Taldekako jardunaldia burutzeko, ondarearen kontserbazioari buruzko ariketa errazak eta era berean jakingarriak gauzatzeko proposatzen zaizkie.

Ariketak eginda, talde osoa berriro batu eta denek elkarrekin jorratuko dituzte gaiak tailerrean: talde bakoitzak egindako hiru ariketatik bakarra aurkeztuko du, hain zuzen egindakoen artean interesgarriena iruditu zaiona.

Ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero, bisitaren ordena (hala nola, goiko klaustroan hasita) alda daiteke. Halaber, ikasgela bat Hezkuntza Tailerrean ez baina beste nonbait bil daiteke, adibidez, beheko klaustroan.


OHARRA: Irakasleentzako koaderno honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.





Hona hemen, goiko solairuaren planoan, ariketa bakoitza egiteko kokalekua:

Goiko solairua



1. TALDEA:

GENERO ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



1.1. ARIKETA



Goiko klaustro ondoko "Tradizioak bizirik dirau" erakustaretoetako batean.

- Tradiziozko lanbideen artean, bila ezazue jardunbide bat praktikan emakumeek soilik egiten zutena.

Lihoari lotutako langintza, lurra eretitik jantziak egin eta saltzeraino.

Lanaren generoagatiko banaketa izan da (eta hein handi batean, oraindik ere bada) gizarte tradizionalen ezaugarria, industrializazioak apurtu edo leundu beharrean askotan areagotu ere izan duena. Tradizionalki, emakumezkoek gehienbat etxeari eta familiaren zaintzari loturiko lanak egokitu zaizkie, edo "handik eratorritakoak": erizaintza, jantziei lotutako oro, haurren hezkuntza eta zaharren zaintza... Bestela, espezializatu gabeko lanak, "laguntzaileak" (ez, haatik, gogortasun fisikorik gabeak) egiten zituzten (eta hein batean, dituzte), oso gaizki ordainduak.



1.2. ARIKETA



Goiko solairuan, "Industria, aldaketaren eragilea" erakustaretoan.



- Gaur egun, Maiatzaren Lehena jai-eguna da; baina jatorrian langileen eskubideak aldarrikatzeko eguna zen, ez jai girokoa.

Bila ezazue Euskal Herrian Maiatzaren Lehena aldarrikatu zen lehendabiziko urtea.

1890ean.

Ekonomia berriak langileria eta aldarrikapen berriak ekarri zituen, aberastasunaren ekoizpen eta banaketan interes oso kontrajarriak baitzeuden. Aurrerapen ekonomiko eta teknikoak, bada, ez dakar berez hobekuntza sozialik.





1.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Eskubideen lorpenak" aldean.



- Kartel hauen arabera, Estatutuak zer nolako gizarte-ideala sustatzen zuen?

Gizarte eredu integratzailea; hau da, klase eta jatorri desberdinetako taldeen elkarbizitza sustatzen zuen.

Lehendabiziko estatutuak lehenagotik zetozen bertako/kanpoko irizpide etnizistak eta "klaseen arteko borroka" bezalako kontzeptuak baztertu eta kulturartekotasuna eta interklasismoa bere egiten zituen, gizarte moderno eta hiritar berri baten isla.

Frankismoaren nazional-katolizismoak eredu aurrerakoi hura suntsitu egin zuen.



2. TALDEA:

LURRALDE TASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



2.1. ARIKETA



Goiko klaustroan, “Jendartean bizitzea” aldean, gerra karlisten arrazoiei buruzko ikus-entzunezkoan.



- 1978ko “Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu.”

Euskal lurraldeen foru-erregimenak Erdi Arotik datozen arren, foruzaletasuna, ideologia politiko gisa, noiz sortu eta garatu zen?

Bi karlistaden artean (1833-1876).

Foruzaletasunarena gai korapilatsua da:

Batetik, ez dago foruzaletasuna korrante politiko bakar batera mugatzerik, oso desberdina izaten zelako “foruaren onura” (alegia, gorde beharrekoa, gainerakoa baztertuz edo aldatuz) aldarrikatzen zuenaren arabera.

Bestetik, Karlistaden ondoren foruzaletasuna ez zen bertan behera geratu: bide berriak jorratu zituen abertzaletasuna, sozialismoa, monarkismo liberal edo karlista eta errepublikanismoa garatu ahala.

Gainera, Nafarroan 1841ean hartutako bidea eta Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian jarraitutakoa (1876an Foruak ezabatu eta 1878an Kontzertu Ekonomikoak ezarrita) desberdinak izan ziren. Frankismoak beste irizpide bat ezarri zuen, bere aldekoak eta kontrakoak bereizita: Araba eta Nafarroa “leialak” versus Bizkaia eta Gipuzkoa “traidoreak”.

1978ko Konstituzioak islatzen du, nolabait, sigi-sagako ibilbide luze hura, 1979ko Gernikako estatutuak ere hein handi batean jaso duena, Lurralde Historikoen pisua aintzat hartuta. Nafarroan, Autonomia Estatutua, teoriarik eta izendapenean, “Foruaren Hobekuntza” da.



2.2. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Euskal Kultura" modulu elkarreragileko Ideiak/Sentimenduak atalean.

- Bila itzazue Iparragirrereren bi bertso hauek, eta bete ezazue falta den bertso-lerroa.

Gernikako arbola da bedeinkatua

Euskaldunen artean guztiz maitatua

Eman da zabal zazu munduan frutua

Adoratzen zaitugu arbola santua

Hara nun diran mendi maiteak,

hara nun diran zelaiak

Baserri eder, zuri-zuriak,

erreka eta ibaiak.

Hendaian nago zoraturikan,

zabal-zabalik begiak

Hara Espainia, lur hoberikan

ez da Europa guztian

- Zuen ustez, zer adierazten dute egile beraren bi bertso hauek?
 - ***Euskaltasuna eta espainiartasuna ez zirela kontrajartzen***
 - Europartasuna aldarrikatzen zela
 - Egilea abertzalea zela

Euskal abertzaletasunaren iturri nagusietako bat foruzaletasuna bada ere, batez ere hasierako urteetan, ezin da ondorioztatu abertzaletasunaren aurreko foruzaletasuna, eta euskaltzaletasuna oro har, "aurre-abertzalea" zenik; izan ere, abertzaletasuna sortu eta garatu ahala garbi geratu zen euskaltzale edota foruzale guztiak ez zirela abertzale; areago, batzuk antiabertzale ziren

2.3. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Eskubideen lorpena" aldean.



- Badakizue noiz eskuratu zuten emakumeek botoa emateko eskubidea Espainian?

1931n aitortu zitzairen, Errepublikako Konstituzioarekin batera.

Lehenengoz 1933an bozkatu zuten, azaroaren 19an; euskal emakumeak izan ziren, ordea, lehenak bozkatzeko, azaroaren 5ean, Autonomia Estatutuari buruzko erreferendumean.

Frankismoak, besteak beste, emakumeen eskubideak latz murriztu zituen.



3. TALDEA:

IRAUNKORTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



3.1. ARIKETA



Goiko solairuan, "Industria, aldaketaren eragilea" aretoko Industrializazioaren faktoreak atalean.

- Barakaldon batez besteko bizi-itxaropenean aldaketa handia eman zen hamahiru urtetan, 1877 eta 1890 artean. Zein zen 1877an, eta zein 1890ean?

1877an, Barakaldon bizi-itxaropena 38 urtekoa zen; 1890ean, herri berean bizi-itxaropena 24 urtekoa zen, batez ere haurren hilkortasun tasa ikaragarri altuarengatik.

- Zergatik uste duzue eman zela halako aldaketa, zerk eraginda?

Bizi- eta lan-egoerak okerrera egin eta demografian islatu zen, hazkunde ekonomiko hutsak ez duelako bermatzen aberastasunen banaketa sozialki zuzena.

Gaur egungo ekonomia globalizatuan ere halako adibideak ugari aurki daitezke hainbat herrialdetan.





3.2. ARIKETA



Goiko solairuan, "Industria, aldaketaren eragilea" aretoko Paisaia industrialak atalean, edo areto beraren sarrerako ikus-entzunezkoan.

- 1950 eta 1975 bitartean, 25 urtetan baino ez, euskal biztanleria bikoiztu egin zen. Zein izan zen hazkunde handi haren arrazoi nagusia?
 - Seme-alaba askoko familien ugaria
 - **Espainia barreneko etorkin askoren bertakotzea**
 - Hilkortasun-tasaren murrizpena
- Zein izan zen etorkin gehien jaso zuen lurraldea?
Bizkaia.
- Bila ezazue non eta zenbaterainokoa izan zen etorkin jatorriko biztanleen proportzio handiena.
Bilbo Handian, %84koa.

Eskualde hartan Bizkaiko populazioaren %73a biltzen zen. Hortaz, datuak, etorkinen portzentajearen handia ez ezik, kontzentrazioa ere azaltzen du: etxebizitza lortzea oso arazo larria bihurtu zen, txabolismoa ere eragiteraino. Bilbo Handian, banaketa sozio-ekonomikoa geografikoki ere islatu zen, ibaiaren ezker eta eskuin aldean.



3.3. ARIKETA



Goiko solairuan, "Industria, aldaketaren eragilea" aretoko Paisaia industrialak atalean



- "Desarrollismo" hitza erabiltzen da frankismoan helburu ekonomikoak baizik aintzat hartzen ez zuen gorakada ekonomikoa aipatzeko. 1975ean krisiak gogor jo zuen babestutako industria mota hura. Txabolek osatutako auzoak desagertu diren arren, orduan lurralde-antolaketan jasandakoen ondorioek iraun diraute gaur egun.

Bila ezazue Eibar, Sestao eta Donostiako zenbait auzotan oso nabarmen geratutako ondorio haietako bat.

Ondorio sozial eta ekologikoak: planifikaziorik gabeko hirigintzarengatik, azkarregi eraikitako etxebizitzak eta kalitate eskaseko biziguneak toki desegokietan pilatu ziren: kutsadura, lurzoru malkortsuak, berdeguneen eskasia, garraiobide kaskarrak...



4. TALDEA:

KULTURARTEKOTASUNAREN ALDETIKO BEGIRADA HISTORIKOA



4.1. ARIKETA



Goiko klaustroan, "Eskubideen lorpena" aldean.



Bila itzazue euskarazko lehenbiziako eskola-liburuak

- Nola idazten dira erre bikoitzak? Eta hatxeak?

***Erreak, erre bakarra tiletarekin (orain ordenagailuz ez dago egiterik).
Hatxerik ez***

- Noiz hasi zen hedatzen gaur egun "euskara batua" izenez ezagutzen dugun era arautua eta idazkera normalizatua?

1968an, Arantzazun egindako bilkuren ondorioz.

Euskarazko administraziorik ezean, eta arautzeko akademia 1919an sorturik, euskararen normalkuntza oso atzeratua zegoen auzo-erdaren aldean. Dena den, 1968ko euskara batuaren sorkuntza ez zen euskara kultu eta estandarizatu bat sortzeko lehenbiziako ahalegina. Gerrak eten zuen grafian nortasun handiz eta hizkeran garbizale samar bat agertzen zen ereduak, eskoletan, komunikabideetan, administrazioan, eta abarretan erabiltzen hasi berria zena.





4.2. ARIKETA



Goiko klaustroan, “Belaunaldi zaratatsua” aldean.



- Bila itzazue frankismo garaian euskal kantarien abestietan askatasun egarria iradokitzen zuten lau titulu.

Nire erria / Ez gaude konforme / Lore gorria / Euskalerrri nerea / Apur dezagun katea / Askatasuna zertarako / Bihar itxaropen / Gure bide galduak

Zuzenean edo modu metaforikoan (besteak beste, zentsura saihesteko), kantagintzak, poesiak, baita arte plastiko abstraktuak ere (berritzaile eta apurtzailea zen heinean), erregimena bera ez ezik, hark bultzatzen zuen gizarte-eredu osoa kolokan jartzen zuten. Europar-mendebaldar eremu osoan gertatzen ari zen aldaketaren isla zen, oro har Espainian frankismoaren aurka eta Euskal Herrian hizkuntzaren alde egitearen berezitasunarekin.



4.3. ARIKETA



Goiko klaustro ondoko “Euskal Artearen 100 urte” sailean.

- Bilduma historikoan zein euskal artean, emakume asko agertzen dira artelanetan. Baina... bilduma historikoan ez dago egile emakumezko bakar bat ere.

Euskal artean, zenbat daude? Noizkoa da lehena?

Bi dira: lehena, Esther Ferrer (“Le fil du temps” artelanaren egilea), Parisen bizi den donostiarra. Bigarrena Maria Luisa Fernandez da, lau artelan ikusgai dituen CVA kolektiboko kideetako bat, Euskal Herrian bizi den leondarra.

Biak XX. mendearen bigarren erdialdekoak dira.

Artegintza, definizioz, esparru publikoari dagokio; hortaz, emakumeek presentzia publikoa berenganatu arte ez dute, artearen esparruan ere, ikusgaitasunik irabazi: artearen objektu bai (gizonezkoek irudikatuak izan dira), baina ez dira oraintsu arte subjektu izan.



**ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ
SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:**

Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.

- San Telmoko ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorrak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. ***Igurtzi*** eskuz:

Zer gertatzen da? ***Hondar aleak erauzten zaizkiola.***

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto? ***Argitu gabea.***

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren ***etsairik okerrenetako bat!***

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- ***Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.***
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.


Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrena aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. ***Konparatu*** material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.






BERTAKOA ETA UNIBERTSALA IBILBIDE OROKORRA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria^{ento}

GARA

naiz:

